

UDAL BATZARRA 6/03

UDAL-BATZARRAK 2.003KO APIRILAREN 10EAN EGINDAKO EZOHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

LEHENDAKARIA: Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nerea Etxebarria Atutxa

AZTERGAIAK:

- 1.-2003ko martxoaren 6ko eta martxoaren 22ko bilkuretako akten onarpena.
- 2.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak agindutakoa betetzeko eginiko dokumentazio osagarriaren onarpena.
- 3.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak etenda utzi zuen eta gaur egun S.1 eta S.2 alorrek eta A.25 areak (orduan A.14 area) osatzen duten R.1 Arearen hasierako onarpena.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak etenda utzi zuen A 14 arearen hasierako onarpena.

5.-Amnesty International-ek “Arrazakeriaren Aurkako Estatu Plan” baten alde aurkezturiko deklarazio instituzionalaren onarpena.

Anoetako Udaetxean, bi mila eta hiruko apirilaren hamarrean, arratsaldeko zazpi terdietan, Udal-Batzarra bildu da, Ezohizko Bilkura egin asmoz JOSE MARIA SARASOLA GOENAGA Alkate jaunaren lehendakaritzapean, alboan aipaturiko zinegotziak dituela.

Nerea Etxebarria Atutxak, Udal honetan Idazkari Akzidentala bezala jardunean ari denak, denaren berri zinpean jasotzen du.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1.- 2003ko martxoaren 6ko eta martxoaren 22ko bilkuretako akten onarpena

Alkateak aipaturiko aktak irakurri ditu eta Udalbatzarrera bertaratutakoek ahobatez onetsi dituzte.

2.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak agindutakoa betetzeko eginiko dokumentazio osagarriaren onarpena

Alkateak gaia azaldu esanez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Anoetako Arau Subsidiarioak behin betikoz onartu zituenen bi gauza egin zituela: alde batetik, area batzuk etenda utzi eta bestalde, beste guztia onartu baina baldintza batzuekin. Baldintza horietako bat dokumentu osagarri batean, 2000ko abenduaren 5eko ebazpenean zehazten zituen hainbat puntu jaso behar zituela zela dio eta hori dela

puntu honetan onartu behar dena. Udal arkitektu aholkulariak ebazpenean zehazturiko puntuak jasotzen dituen dokumentu osagarria prestatu zuela, gaur onartzera dakarrena.

Erabakia:

Udalbatzarrera bertaratutakoek, ahobatez, hurrengo erabakia hartu dute.

Lehenik: Anoetako Hiri Antolaketako Arauei dagokienez, 2000ko abenduaren 5eko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ebazpenak ezarritako baldintzak betetzeko egindako Dokumentazio Osagarria onartzea.

Bigarrenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Departamendura Dokumentazio Osagarriaren ale bat bidaltzea, diligentziatu eta espedientean sar dezaten.

3.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak etenda utzi zuen eta gaur egun S.1 eta S.2 alorrek eta A.25 areak (orduan A.14 area) osatzen duten R.1 Arearen hasierako onarpena.

Alkateak gaiaren aurkezpena egin du, adieraziz etenda geratu zen R.1arean zein aldaketa egin diren eta area honen azalpen zabala emanez

EAJ-PNV/EA taldeko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak esan du bere taldea printzipioz, ados dagoela planteatzen diren aldaketekin. Baina uste dutela ez dela hau onartzeko garai egokiena, azterketa sakonagoa beharko lukeela eta ez dela gehiegi landu. Horrelako onarpen batekin hurrengo Udala lotuta geratzen dela eta horregatik ez dela garai onena onartzeko nahiz eta orkorrean ideia ona den eta ez duten aurka egingo. Esate baterako S2 ko aprobetxamendua askotan pentsatu

dute beste gauza batzuk sortzeko erabiltzea, futbol zelai bat adibidez. Horregatik, eurek uste dutela hurrengo Udala detaile askotan lotuta geratzen dela.

Jose Maria Sarasola Goenaga alkate jaunak erantzuten dio gai hau asko landu dela. Gaurko Osko Bilkurara datorrela gai hau, lan asko eta buelta asmo eman ondoren. Bera duela hiru bat urte Foru Aldundikoekin egon zenean, galdetu ziotela ea noiz bukatuko zituzten definitiboki Anoetako Arau Subsidiarioak. Alkateak jarraitzen du esanez, hau herriko demandaren arabera eginda dagoela, soluzionatzen dela herriari bigarren bial bat egitea, herriko sarrera eta irteerak egiteko. Alkateak dio, berak duela zortzi urte sartu zenean zituen Arau Subsidiarioak, Foru Aldundiak atzera bitatuko arau batzuk zirala eta haietan ez zela Babes Ofizialeko Etxebizitarik aurrikusten.

EAJ.PNV/EA taldeko Jose Ignacio Otermin jaunak dio berak ez duela inolaz ere dudatan jartzen egin den lana, baina adibidez, eurek ez dakitela zein jende, zein familia apuntatu diran orain atera den Babes Ofizialeko Etxebizitzen promoziora, edo Arau hauetan zehazten den etxebizitza mota den behar dena edo beste bat.

Alkateak erantzuten dio Arauetan ez dela zehazten zein etxebizitza mota izango diren, etxebizitzen banaketa eta aukeraketa ondoren egiten dela dio.

ASA taldeko zinegotzia den Pedro Maria Peñagarikano Labaka jaunak dio garrantzutsua dela eremu bat zehaztuta izatea Babes Ofizialeko Etxebizitzentzat. Horrek bakarrik aipatzen duela zenbat egin daitezkeen baina posible dela gutxiago edo ezberdinak egitea, zentsu horretan ez duela ezer lotzen esaten du. Jarraitzen du esanez, Babes Ofizialeko Etxebizitzen bigarren fasea egin aurretik Udalak berriz ere egingo duela azterketa bat, zer den behar dena zehazteko. Erantzuten dio Jose Ignacio Otermin jaunari esaten duenean lotuta uzten duela hurrengo Udala, ez dabilela zuzen, zeren bere ustez hurrengo Udalak planeamendu bat behar duela, oso inportantea dela plabneamendua izatea eta gainera planeamendua aldagarriak direla, nahi duenean aldaketa puntualak egin ditzakeela Udalak.

Bestalde, erantzuten dio Babes Ofizialeko Etxebizitzetara apuntatu den jende motari dagokionez, datorren astean Babes Ofizialen gaia eramateko kontratutako Josunek

behin behineko zerrenda prestatua izateko asmoa duela eta zerrenda izan bezain azkar, pasatuko zaiela ikus dezaten zein jende apuntatu den.

EAJ-PNV/EA taldeko Jose Ignacio Otermin jaunak dio, berriz ere diola bere eta bere taldearen ustez, ez dela hau onartzeko une egokiena.

Erabakia:

Erabakia bozketara eraman da eta hurrengo emaitzak izan dira:

Alde:5 (ASA taldeko zinegotziak)

Aurka:0

Abstentzioak:1 (EAJ-PNV/EA taldeko zinegozia)

Udalbatzarrak gehiengo osoz hurrengo erabakia hartu du:

Lehenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2000ko abenduaren 5ean emaniko Ebazpenak etenda utzi zuen Anoetako Arau Subsidiarioetako R.1 areari hasierako onarpena ematea.

Bigarrenik:Aipaturiko R.1 Areari dagokion espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia publikatu eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean. Modu berean, Diario Vasco, Gara, Egunero eta Tolosaldeko Hitza egunkarietan ere hasierako onarpenaren iragarkia publikatzea.

Hirugarrenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailari espedientea bidaltzea, txostena egin dezan.

Laugarrenik:Jendaurreko epean alegaziorik egoten ez bada hasierako onarpena jaso zuen dokumentuari behin behineko onarpena emango dio Osoko Bilkurak eta alegazioak egon badira, hauetara eman eta behin behineko onarpena emango dio Osoko Bilkurak, baina edozein kasutan ere, Errepide Sailak bere txostena eman ondoren.

Bosgarrenik:Anoetako Arau Subsidiarioetako R.1 Areari dagokion dokumentuaren lau ale diligentziatu eta izapidetutako espedientearen bi ale Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Sailera bidaliko dira, honek behin behineko onarpena eman

diezaion sei hilabeteko epean gehienez ere eta ondoren, aldatetaren textu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu dezan.

4.-Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak Anoetako Arau Subsidiarioen Testu Bategina onartzeko emaniko 2000ko abenduaren 5eko ebazpenak etenda utzi zuen A 14 arearen hasierako onarpena.

Alkateak gaiaren aurkezpena egin du, A.14 arearen azalpen zabala emanez

EAJ.PNV/EA taldeko zinegotzia den Jose Ignacio Otermin jaunak aurreko puntuan egindako adierazpenak honetarako ere berdin balio dutela dio.

Erabakia:

Erabakia bozketara eraman da eta hurrengo emaitzak izan dira:

Alde:5 (ASA taldeko zinegotziak)

Aurka:0

Abstentzioak:1 (EAJ-PNV/EA taldeko zinegozia)

Udalbatzarrak gehiengo osoz hurrengo erabakia hartu du:

Lehenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2000ko abenduaren 5ean emaniko Ebazpenak etenda utzi zuen Anoetako Arau Subsidiarioetako A.14 areari hasierako onarpena ematea.

Bigarrenik:Aipaturiko A.14 Areari dagokion espedientea jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia publikatu eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean. Modu berean, Diario Vasco, Gara, Egunero eta Tolosaldeko Hitza egunkarietan ere hasierako onarpenaren iragarkia publikatzea.

Hirugarrenik: Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailari espedientea bidaltzea, txostena egin dezan.

Laugarrenik: Jendaurreko epean alegaziorik egoten ez bada hasierako onarpena jaso zuen dokumentuari behin behineko onarpena emango dio Osoko Bilkurak eta alegazioak egon badira, hauetako erantzuna eman eta behin behineko onarpena emango dio Osoko Bilkurak, baina edozein kasutan ere, Errepide Sailak bere txostena eman ondoren.

Bosgarrenik: Anoetako Arau Subsidiarioetako A.14 Areari dagokion dokumentuaren lau ale diligentziatu eta izapidetutako espedientearen bi ale Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Sailera bidaliko dira, honek behin behineko onarpena eman diezaion sei hilabeteko epean gehienez ere eta ondoren, aldaketaren textu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

5.-Amnesty International-ek “Arrazakeriaren Aurkako Estatu Plan” baten alde aurkezturiko deklarazio instituzionalaren onarpena.

Jose Maria Sarasola alkate jaunak Maite Aizpurua zinegotziari eman dio hitza puntu hau aurkez dezan.

Maite Aizpurua zinegotzi andereak Amnistia Internationalek Udalarari aurkezturiko deklarazio instituzionala irakurri du.

Erabakia:

Udalbatzarrera bertaratutakoek, ahobatez, Amnesty International taldeak aurkezturiko ondorengo deklarazio instituzionala onartu dute:

“Kontsideratuz, 2001eko abuztuaren 31 eta irailaren 8a bitartean, Durbanen (Hego-Afrikan) ospatu zen Arrazakeria, Arraza diskriminazioa, Xenofobia eta Intolerantzia Forma Konexuen aurkako Mundu Konferentzian, Espainiako gobernuak, prebentzio, heziketa eta babes neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuela Arrazakeria, Arraza diskriminazioa, Xenofobia eta Intolerantzia Forma Konexuekin bukatzeko asmoz, estatu, erregio eta nazioarte mailan.

Kontsideratuz, estatu espainiarrak, 2003ko uztaila baino lehen, Europar Batasuneko 43/2000 Direktiba bere legeriaren barnean sartzeko obligazioa duela eta Direktiba horrek zera esaten duela: “pertsonekiko tratu berdintasunaren printzipioaren aplikazioa, pertsonen jatorri etniko edo arraziala edozein izanik.”

Kontuan izanik, duela denbora asko, baina orain gehiago, zenbait erakundek (Amnistia Internazional, Torturaren Aurkako Erakundea, Herriaren Defendatzailea, Human Rights Watch, SOS

Arrazakeria) hala nola, nazioarteko zenbait organismoek (Arraza Diskriminazioa Elimintzeko Batzordea, Torturaren Aurkako Batzordea, Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Elimintzeko Batzordea edo Umearen Eskubideen Batzordeak) inmigranteen eta gutxiengo etnikoen aurkako tortura eta tratu txarren kasuen gehitze bat salatu dutela, estatu agenteen eta partikularren eskutik.

Kontuan izanik, Europar Batasunak hartutako neurriak arrazakeriaren aurka borrokatzeko.

Helburutzat izanik, arrazakeria, arraza diskriminazioa, xenofobia eta inmigranteen eta ijituen aurkako tratu txarren gehitzearen aurkako borrokan parte hartzea.

ANOETAKO UDALETXEAK

Espainiako gobernuari zera eskatzen dio: ARRAZAKERIAREN AURKAKO PLAN ESTATAL BAT diseinatu, onartu eta martxan jarri dezala, gutxienez honako neurriekin:

- A) Neurri politikoak, sozialak, heziketa edo sentsibilizaziora bideratuak, portaera xenofoboak eta inmigranteak orokorrean baztertzeko adierazpenak sortarazten dituzten ekintza eta jarreraren aurka borrokatzeko; arrazakeria, arraza diskriminazioa, xenofobia eta intolerantzia forma konexuak elimintzeko, lantokietan, hala nola sanitate, heziketa, giza-prestazio, etxebizitza eta aisialdirako lokaletara heltzeko.*
- B) Neurri espezifikokoak tortura eta tratu txarrak eragozteko estatu agenteen eskutik, hala nola arrazakeria adierazpen konexuak segurtasun indarren eta justizia administrazioaren eskutik, pertsonaren jatorri etnikoa erabakitzailea izan denean bere atxiloketan.*

Planaren elaborazio prozesuan eta estrategian parte hartu behar dute, dagozkien autoritateez gain, talde afektatuen ordezkariak, Gobernu Kanpoko Erakundeak eta arrazakeriaren eta justizia administrazioaren arloan lan egiten duten expertoak, neurtu daitezken helburuak eta zaintzarako mekanismoak jarri. Era berean, beharrezkoak diren giza errekursoak eta materialak jarri behar dira, planaren martxa egokirako eta arrazakeriaren aurkako borrokaren eraginkortasuna ziurtatzeko.”

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko bederatziak hogeita bost gutxiago direnean. Guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.

O.E

ALKATEA

IDAZKARIA